


1.14 erronkaren kontrola prestatzeko ariketak:


Galdera teorikoak:

1. Deskribatu abiadura handiko CAN BUS-aren ezaugarri nagusiak. Ze oszilograma lortuko dugu osziloskopioarekin? Nola egiaztatu dezakegu lorturiko seinalea egokia dela?
2. Ze desberdintasun daude abiadura baxuko CAN-aren eta LIN-Bus-aren artean. Jarri erabilera adibiderenbat
3. SRS sistemako osagai bat manipulatzeko ze segurtasun neurri hartu beharko lirateke?
4. Nola funtzionatzen du MOST BUS-ak? Zertarako erabiltzen da?
5. Aipatu SRS sistemako sentsoire eta aktuatzaille garrantzitsuenak
6. SRS sistemaren parte den segurtasun gerrikoaren baten ondorengo eskema elektrikoa interpretatu. Deskribatu ahalik eta detaile handienarekin




7. Zergatik ezin da airbag-a lehertzen duen erresistentzia polimetroarekin neurtu?

8. Nola egiaztatu dezakegu Airbag-aren aktibazioa sistema? Zenbat etapatako Airbag-a da eskeman ageri dena?




9. Nola lortzen da haizetako garbigailuaren mugimendu ozsilatzailea? Marraztu modu eskematikoan hori lortzeko erabiltzen den mekanismoa
10. Nola lortzen da eskobila bere lekura itzultzea deskonektatzeko agindua eman ondoren? Azaldu ondorengo eskemaren laguntzaz.




11. Deskribatu nola funtzionatzen duen inobilizagailuaren sistemak. Nola daki kontrol unitateak erabiliko den giltza egokia dela? Nola jakin dezakegu agente panelean inobilizagailuarekin arazo bat dagoela?
12. Nola funtzionatzen du giltza gabeko zerrailen irekitze sistemak?

13. Deskribatu ahalik eta detaile handienarekin zerraila manipulatzeko erabiltzen den motorraren ondorengo eskema elektrikoa: Polimetroarekin ze neurketa egingo zenituzke? Ze emaitza lortuko zenituzke?




14. Azaldu nola funtzionatzen duen ondorengo beira igogailuei dagokion eskema elektrikoak.



Galdera praktikoak:

1. Egiaztatu SEAT ATEKA-eren beira igogailu sistemak egoki funtzionatzen duela. Bezeroren esanetan aginte botoiak zalpaldu arren beira ez da mugitzen. Ze pauso jarraituko zenituzke? Zein da diagnosia? Zeintzuk dira diagnosia frogatzen duten neurketak? Zein da konponketa?
2. Hartu FORD FIESTA-ren CAN-BUS seinaleak eta diagnostikatu. Margotu seinalea. Anomalia bat egotekotan margotu seinalea eta justifikatu diagnosia
3. Interpretatu HYUNDAI-aren haizetako garbigailuaren eskema elektrikoa. Deskribatu zer gertatzen den likidoaren bonba aktibatzeko botoia zapaltzean



4. Neurtu HYUNDAI-aren aurreko haizetako garbigailuaren motorraren bobinatuen erresistentziak HI eta LOW-rako eta identifikatu ze kable den bakoitzarena.

5. Identifikatu FIAT-BRABO-aren zerrailaren osagaiak eta esan elementu bakoitzak nola funtzionatzen duen ondorengo eskema eta irudiaren laguntzaz.

